

**ERABAKIA, 2022ko MARTZOAREN 18koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021 (III. MODALITATEA) BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2021eko maiatzaren 7an, UPV/EHUN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2021(III. Modalitatea).

Eskaeren ebaluazio izapideak bukatu ondoren, IGBBk adostu zuen errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Gero, izangaiek hamar eguneko epea izan zuten egokitzen jotzen zituzten alegazioak aurkezteko. PIFBUR21/12 (41744720L) kodea duen eskaera aurkeztu dituen pertsonak ezetz esan dio laguntzari.

Izapide hori bukatu ondoren, ERABAKI DA errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda.

### **ERABAKI DUT**

**Lehenengoa.-** Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena.

**Bigarrena.-** **2022ko martxoaren 19tik 24era bitarteko epea** irekitzea, hautatutako pertsonak Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 11. oinarrian eskatutako agiriak, betiere II. eranskinean jasotako jarraibideen arabera. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.

**Hirugarrena.-** Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

**Laugarrena.-** Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen

hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2022ko martxoaren 18an.

INMACULADA AROSTEGUI MADARIAGA  
Ikerketaren arloko errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación

UPV/EHU*n* IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDEIA (2021)

III. MODALITATEA

Emandako eta ukatutako eskaeren behin betiko ebazpena

I. ERANSKINA

NAN	KODEA	TXANDA	Ebaluazio irizpidea batez-beste <span>ko nota haztatua</span>	Irizpidea ebaluazio-txostena	Ebaluazio irizpidea hizkuntza ez ofizialak	PUNTUAZIOA GUZTIRA III. MOD	BEHIN BETIKO EBAZPENA
79067876V	PIFBUR21/06	GRAL	23,20105484	34	8	65,20105484	EMANDAKOA
73412059S	PIFBUR21/05	GRAL	19,41832991	28	5	52,41832991	EMANDAKOA
A15298885	PIFBUR21/08	GRAL	22,35075933	30	0	52,35075933	EMANDAKOA
21A187492	PIFBUR21/09	GRAL	23,45412245	27,75	0	51,20412245	EMANDAKOA
44689905P	PIFBUR21/04	GRAL	10,23508181	25	8	43,23508181	DORTORETZA EGITERO BESTE KONTRATU BATEKIN BATERAEZINA
16098429Q	PIFBUR21/07	GRAL	12,14761631	30,5	0	42,64761631	DORTORETZA EGITERO BESTE KONTRATU BATEKIN BATERAEZINA
41744720L	PIFBUR21/12	GRAL	12,78825014	29	0	41,78825014	BORONDATEZKO UKOA
34274263P	PIFBUR21/16	GRAL	12,38053902	29	0	41,38053902	EMANDAKOA
44688396V	PIFBUR21/10	GRAL	14,08184957	26	0	40,08184957	UKATUTAKOA
79135872W	PIFBUR21/03	GRAL	9,659645551	24	0	33,65964555	UKATUTAKOA
16087789W	PIFBUR21/01	GRAL	5,984206476	26,4	0	32,38420648	UKATUTAKOA
50898606C	PIFBUR21/11	GRAL	4,667680154	26	0	30,66768015	UKATUTAKOA
18DI81716	PIFBUR21/02						BAZTERTUTA
51125645A	PIFBUR21/13						BAZTERTUTA

## **II. ERANSKINA**

### **UPV/EHU<sup>n</sup> AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Esleipendunek honako dokumentazio hau bidali beharko dute [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora, pdf formatuan, **2022ko martxoaren 19etik 24ra bitarteko epean:**

- a. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendari kideek eta adskripzioari dagokion sail, institutu zein ikastegiko zuzendariak ontzat emana.
- b. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- c. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- d. Zereginetan hasi izanaren ziurtagiria.
- e. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.
- f. Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).

Gainera, dokumentazioa UPV/EHUren Erregistro Orokorren bidez (esteka honetan kontsultatu daitezke UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra-ordutegia>), UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez edo, hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduetako batean bidali beharko dute. Erregistro elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), "Nora" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketaren Giza baliabideen Kudeaketa (U02000381)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "PIF Burdeos 2021".

### **Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola.**

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("*Dokumentuak*" izeneko erlaitza).

Dokumentazioa aurkezteari eta kontratazio prozesuari buruzko kontsultak [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora bidali behar dira.